

Bertsoaren mintzoa ♦

Arabarrak etorkizunari begira

30 bertsolari gazte aritu ziren joan den asteburuan Albeizan, Arabako bigarren topaketetan

Jon Abril / Albeiza

Arabako bertsolari gazte-
 en bigarren topaketek 30
 gazte bildu dituzte aste-
 buru osoan Albeizan.
 Elkar ezagutzea eta ongi
 pasatzea zuten helburu,
 baina aurrera begirako
 egitasmoak ere pentsatu
 dituzte.

ORAIN bi urte elkartu ziren
 lehenbiziko aldiz Arabako
 bertsolari gazteak, eta, aur-
 tengo urteari hasiera ezin
 hobia emateko asmoz, aste-
 buru osoan elkartu dira
 Albeizan, Araian. Legutio,
 Aramaio, Amurrio, Agurain
 eta Gasteizko bertso eskole-
 tako 15 urtetik goitiko 30
 gazte bildu dira bigarren
 topaketetan. «Elkar ezagu-
 tzea eta ongi pasatzea izan
 da helburua», erran digu
 Oihane Pereak, antolatzaile-
 tako batek.

Lehendabiziko topaketa
 hartan bakarrik Gasteizko
 bertso eskolako kideak bildu
 ziren. Ordudanik, baina, ber-
 tze lau bertso eskola paratu
 dituzte abian Araban, ares-
 tian aipatu herrietan, eta
 nahiz eta irakasle lanetan
 Gasteizko zenbait kide aritu,
 elkarren artean guti ezagu-
 tzen dutenez hori izan da
 aurtengo topaketaren helbu-
 rua. «Topaketa urtero egin
 beharra ikusi dugu, elkarre-
 kin gauza gehiago egin behar
 ditugulako», erantsi du Pere-
 ak. Bertso eskoletan dabil-



Oihane Perea, zutik, eta Albeizako topaketetan aritu ziren hainbat bertsolari gazte, mahaiaren inguruan.

tzan irakasleak elkarrekin
 aritzen dira Gasteizen, eta,
 horrela, haiek arduratuko
 dira koordinazioaz.

Ekain aldean, bigarren-
 goz, bertsolari gazteen eguna
 egin nahi dute, eskola arteko txapelketarekin batera. «Eskola
 arteko txapelketari urdurita-
 suna kendu eta ongi pasatze-
 ko tarte egin nahi diogu»,
 adierazi du Pereak. Halaber,
 18 urtetik goitikoentzat lagu-
 narteko sariketa egin nahi
 dute, San Prudentziotik

kanpo. «Bertze giro batean
 egin, ez txapelketako tentsio-
 arekin». Arabako txapelketa-
 rako bidea urratu nahi dute
 modu horretan. Aldez aurretik
 bertze bertso eskola
 batzuekin trukerik egin
 bazuten ere, arabarren arte-
 ko harremani ekinen diete,
 lehentasuna hor paratuz.

Ongi pasatzea helburu

Astebururako makina bat
 ekitaldi zituzten prestatuak.

Jolasen bidez errimak, pun-
 tuak eta bertsoak landu
 dituzte; bertso zaharrak kan-
 tatzen ibili dira 30 gazteak,
 eta bertso eskola bakoitzak
 bere antzerkitxoa ekarri zuen
 prestaturik, bertsotan oina-
 rritua.

Mendi irteerarik eta kan-
 poan egiteko zenbait ekitaldi
 prestatuak bazituzten ere,
 asteburuan gogotik egindako
 elurrak horiek zapuztu eta
 etxe barrenean egin zuten
 ortziral arratsaldetik igande
 bazkalondorako tarteak.

Larunbatean egin gogo
 zuten besta ere zapuztu zien
 elurrak, baina besta gunea,
 Aiarako tabernak izan beha-
 rrean, Albeizako erretorearen
 etxea izan zen —egoitza, ale-
 gia—. Igande goizean eginda-
 ko irakurketak argi asko era-
 kutsi zuen helburu guztiak
 ederki bete zirela: elkar eza-
 gutu eta, batez ere, hagitx
 ongi pasa.

Lanean segitzeko bultzada

Egun Araban dauden bortz
 bertso eskoletako arduradu-
 nak ere Albeizan izan ziren,
 Asier Iriondo eta Eñaut Agi-
 rre izan ezik. Gainerakoak
 han ziren: Asier Otamendi,
 Oihane Perea, Olatz Perea,
 Argiñe Santxa, Irati Lotina
 eta Nagore Lopez de Luzuria-

XXI. mendea

iritzia

ASIER OTAMENDI • Bertsolaria

EHUN lagun inguru dabilta une honetan Ara-
 bako bertso eskoletan (Bertsozale Elkartearen
 esku daudenetan zein ikastoletan). Nekez
 imajinatuko nukeen orain zortzi urte, Txustan
 lehen aldiz sartu nintzenean. Orduan lau katu
 ziren, helduak gehienak. Kide berriak ere kan-
 potarrak normalean, Gipuzkoa eta Bizkaitik
 joandako ikasleak; bazirudien gasteiztar
 batentzat oso urrun geratzen zela *euskara*
zarratua zerabilten baserritar haiekin jardue-
 tea.

Oso denbora laburrean, oster, eta Oihane
 Perearen gidaritzapean dabilen talde bati
 esker, badirudi aro berri baten atarian gaude-
 la; gazte andana ederra sartu zaigu bertsoaren
 mundura, ia denak ikasleak, oso gazteak

gehienak; bertsoaren lilura sentitu, zaletasu-
 naren grina piztu, eta erdal gune garbi batean,
 gure ohitura zaharra biziberritu eta praktika-
 ra eraman nahi dutenak.

XXI. mendean sartzera goazen honetan,
 Euskararen erronkak hainbat azpierronka
 izango dituela badakigu, Araban horietariko
 bat bertsolaritzarena izango da behintzat.

Elkar ezagutzeko balio izan dute topaketa
 hauek, eta hala izan da. Gasteiz, Amurrio,
 Aramaio eta Legutioko jendea egon da, eta
 nabari da bakoitzean bertsoaren su txikia piz-
 tea ez dela erraza izango, hala ere bolondresik
 ez zaigu falta. Sortu den giroak merezi izan du;
 badirudi bertsoak ere merezi duela. Hurrengo
 zita, sagardotegia.

saioak

• Ostirala, 15

AZPEITIA

Añota sagardotegian

Andoni Egaña, Sebastian Lizaso

TOLOSA

Bertso-afaria Oargi elkartearen,
 21:30etan

Amaia Agirre eta Ibon Karrera

LESACA

Bortzirietako bertso eskolaren txapel-
 ketako 2. kanporaketa Kattu osta-
 tuan, 22:00etan

Estitxu Arozena, Estitxu Fernandez, Erika Lagoma, Bittor Elizagoien, Iñigo Olaetxea, Ekiñe Etxepeteleku

• Larunbata, 16

TOLOSA

Jaialdia Beotibar pilotalekuan,
 22:30etan

Andoni Egaña, Sebastian Lizaso, Angel Mari Peñagarikano, Unai Agirre, Maialen Lujanbio, Unai Iturriaga

Gaijartzailea: Amaia Agirre

ARESO

Zezenjana Elkartean, gauean

Joxe Agirre, Joxe Lizaso

• Igandea, 17

BARIÑAGA (MARKINA-XEMEIN)

Jaialdia 17:30etan

Aitor Mendiluze, Jon Sarasua, Angel Mari Peñagarikano, Igor Elortza

OIARTZUN

Jaialdia Elorsoro kiroldegian,
 18:00etan

Andoni Egaña, Sebastian Lizaso, Jokin Soroazabal, Unai Iturriaga, Jon Maia, Mikel Mendizabal, Jon Martin, Maialen Lujanbio

Gaijartzailea: Laxaro Azkune

MUNGIA

Herriko plazan, 12:30etan

Oihane Enbeita, Sebastian Lizaso, Mañukorta, Unai Iturriaga

GETARIA

Udaletxeko balkoitik, eguerdian eta
 arratsaldean

Iñaki Murua, Loidisaletxe II.a

ga. Haien aburuz, lanean
 segitzeko bultzada izan dira
 iragan asteburuko Arabako
 bertsolari gazteen topaketak,
 eta bertso eskola geletatik
 ateratzeko premia sumatu
 dute. «Bertze bertso eskole-
 kin irteerak egingo ditugu,
 txapelketetara, bertso saioe-
 tara eda bertzelako ekitaldi-
 tara», bertsolari gazteen
 hitzetan.